



Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2018ko otsailaren 5etik 9rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisisia


uroguneko PMI Konposatuaren indizea 58,8ra heldu zen urtarrilean, 2006ko ekainetik lortu duen ailarik handienara, eta aurreikusitako 58,6 puntuen gainera kokatu zen. Gauzak horrela, rdueraren hazkunde osoa azken 12 urtetako maximoetaraino bizkortu zen, eskari berrien fluxu endoek bultzatuta eta 2000. urteko amaieratik eman den enplegu-sorrera handienaren guntzarekin. Hazkundeak hobera egin zuen Espainian, azken sei hiletako maximoetaraino. emania ia zazpi urtetako maximoetan dago. Frantzian, hedapenaren erritmoa aurreko rreikuspenak zehaztutakoa baino pixka bat apalagoa izan zen, baina, hala ere, iazko endukoa baino azkarragoa eta 2011ko erdialdetik eman den indartsuenetako bat izan zen.

Adierazlearen azalpena

uroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko idaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien ldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, au da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; asu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia azten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ASTEKO LANGABEZIA ESKAERAK



Datuaren analisia

Langabezia-sarien eskaera berriak egin zituzten estatubatuarren kopuruak behera egin zuen, zuztean, iragan astean, eta ia 45 urtetan izandako mailarik apalenera jaitsi zen, lan-merkatuaren ebekuntzari esker. Hain zuzen, **estatuko langabezia-sarien lehen eskariak 9.000ra** jaitsi ziren, osoien gorabeherak aintzat hartu gabe 221.000ko kopurura, otsailaren 3an amaitu zen astean. Ontzitatutako analistek egindako kalkuluen arabera, aurreko astean eskariak 232.000ra igo ehar ziren.

Adierazlearen azalpena

Langabezia-sariaren asteko eskaerak astero argitaratzen ditu AEBetako Lan Sailak. Langabezia-aria lehenengo aldiz eskatzen duten pertsonen kopurua erakusten duen adierazlea da. Langabezia-eskaeren kopurua lan-merkatuaren osasuna neurtzeko neurgailu bat da. Gero eta eskaera gutxiago, orduan eta indartsuagoa izango da lan-merkatua, eta alderantziz.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisisia


Abenduko balantza komertzialak 538.900 milioi yeneko superabita izan zuen abenduan, urteko ontaketan % 33,4 txikiagoa, inportazioetan izandako igoeraren ondorioz. Hain zuzen ere, inportazioek % 14,6 egin zuten gora abenduan, 6,7 bilioi yenen mailaraino, eta esportazioak, aldiz, % 8,8 hazi ziren, 7,27 milioi yenetaraino.

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde atean ekoiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde atean ekoiztu eta erosten direnen balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa denean; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean ematen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisisia

Itarrilean, Txinako KPIa urte arteko % 1,5eko mailaraino hazi zen, abenduan baino hiru hamarren gutxiago. Elikagaiak ez diren produktuen eta zerbitzuen prezioen igoerak bultzatu zuen azkunde hori, urte arteko % 2 eta % 2,3 hazi zirenak, hurrenez hurren.

Adierazlearen azalpena

Plai hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun ultzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu do txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazl ea	Aurreik.
02/13	Erresuma Batua	Hileko KPIa	-% 0,6
02/13	Erresuma Batua	YoY azpiko KPIa	% 2,6
02/14	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0,2
02/14	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0,6
02/14	Alemania	Hileko KPIa	-% 0,7
02/14	Italia	WDA QoQ BPGd	% 0,4
02/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0,1
02/14	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 0,6
02/14	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0,3
02/14	Estatu Batuak	YoY elikagairik eta energiari gabeko KPIa	% 1,7
02/14	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0,2
02/14	Estatu Batuak	Asteko etekinak bb erreala YoY	--
02/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
02/15	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	% 9,5
02/15	Espania	Hileko KPIa	-% 1,1
02/15	Italia	Balantza komertziala guztira	--
02/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	22.3b
02/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	18.0
02/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	228k
02/15	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	22.0
02/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,2
02/16	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	% 0,6
02/16	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1231k
02/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 3,3
02/16	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 0,0
02/16	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	95.5
02/16	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	111.7
02/16	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	87.1

JRTSAK:

itsiera orokorren astea munduko burtsa gusietan. Aste honetan, aurreikuspenak gainditu uzten enpresen emaitzak ezagutu ditugu, baina sen igoera oldarkorrako bat eragin zezakeen flazioaren gorakada baten aurreko beldurren idorioz, burtsek jaitsiera handiak izan zituzten. Estalde, iragan ostegunean, Ingalaterrako ankuaren bilera egin zen, eta erakundeak daketarik egin gabe eutsi zion bere diru-politikari. exitari dagokionez, berriz, aurrerapauso gutxi eman en, eta badirudi trantsizio-epaia 2020tik harago zatuko dela. Alemanian, CDU eta SPD alderdiek alizio handia osatzeko akordioa lortu zuten. naitzeko, Europako Batzordearen aurreikuspenak nan ziren ezagutzera: eurogunearentzako izkunde-aukera hobekak islatzen dira bertan, % 3koak 2018an (% 2,1 aurr) eta % 2koak 2019an (% 3 aurr.).

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Local)	1.534,16	-5,21	-3,28
IBEX 35	9.639,60	-5,60	-4,03
DJ EURO STOXX 50	3.325,99	-5,60	-5,08
DJ STOXX 50	2.974,33	-5,39	-6,40
FTSE	7.092,43	-4,72	-7,74
S&P 500	2.619,55	-5,16	-2,02
Dow Jones	24.190,90	-5,21	-2,14
NASDAQ	6.874,49	-5,06	-0,42
NIKKEI 225	21.382,62	-8,13	-6,07
MSCI GORAKORRAK (Lo	59.940,73	-6,45	-1,54
MEXBOL	47.799,09	-5,15	-3,15
BOVESPA	80.898,70	-3,74	5,89
SHANGHAI	3.278,01	-9,60	-5,35

RRENTA FINKOAK:

asen igoera oldarkorrako bat eragin dezakeen flazioaren gorakada baten aurreko beldurrak egazkortasun handia piztu zuen epe luzeko zor nerikar eta alemaniarrean. Hala ere, zor eriferikoaren portaera egonkorra izan zen. ferentzial espainiarrak 3op egin zuen gora. flazioarekiko beldurrak kreditua okertzea eragin en, eta kalitate txarrenekoa nabarmen handitu zen 8op).

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,57	-0,03	0,06
ESPAINIA 2 URTE	-0,20	0,15	0,15
AEB 2 URTE	2,07	-0,07	0,19
ALEMANIA 10 URTE	0,75	-0,02	0,32
ESPAINIA 10 URTE	1,48	0,01	-0,09
AEB 10 URTE	2,85	0,01	0,45
ALEMANIA 30 URTE	1,35	-0,07	0,09
ESPAINIA 30 URTE	2,54	-0,02	-0,31
AEB 30 URTE	3,16	0,07	0,42
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	55,13	10,01	10,21
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	275,40	28,31	42,97

BISAK/LEHENGAIK:

olarrak % 2,05eko balioa irabazi zuen Euroaren dean, tasen igoera oldarkorrakoa izateko rikeraren, AEBetako datu makro onak gitaratzearen eta horien babesleku-eraginaren idoren. Yenak ere balioa irabazi zuen, babesleku odura. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 27 jaitsi zen. AEBetako ekoizpenaren igoera eta olarrak balioa handitzeak eragin negatiboa izan rten kotizazioan. Urrearen balioa, bestetik, % 1,26 jin zuen atzera, 1.316,15 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
Dolarra / Euroa	1,22	-2,05	1,60
Yena / Euroa	132,43	-3,58	-2,16
Libera / Euroa	0,89	0,58	-0,33

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brent)	62,42	-8,27	-6,58
Urrea	1.316,15	-1,26	1,01



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.